

**Xabier Aranburu Sagarzazu**  
Hondarribia, 1931-IX-4 – Donostia, 2014-VII-10

2015eko urtarrila  
Joxemari Iriondo  
Ohorezko euskaltzaina

2014ko uztailearen 10. eguna zen. Felix Maraña lagun eta kazetariak Facebookez bidalitako oharra hartu nuen, eta gero Euskaltzainditik abisua, Xabier Aranburu Sagarzazu kazetari eta euskaltzain urgazlea hil zela, 82 urterekin. Donostiako Groseko San Inazio parrokian egin zen hileta elizkizuna, uztailearen 11n.

Aspaldiko ezagun eta adiskidea nuen Xabier, ofizio berdintsuan ari baikinen, bera *La Voz de España* egunkarian, eta ni Loiolako Herri irratian. Harremanak sarri izan genituen. Egun berean egin gintuzten Euskaltzain urgazle ere, 1975eko ekainaren 27an.

Euskal kultura alorreko edozer zabaldu behar zenean, irailako Euskal jaiak Donostian, Urolako Jardunaldiak Azpeitian, Iztuetaren omenaldia Zaldibian, Euskaltzaindiak bi-hiru urtez behin antolatu ohi zuen Euskal Herriko Bertsolarien Txapelketa nagusian eta abar, albisteak eskatu/eman trukean ibili ginen sarri, bata bestearen mesedez.

Belaunaldi gazteagoetara transmititzen asmatu ez badugu ere, garai bateko jendeak nekez ahaztuko du Aranburu langile porrokatuaren arrastoa euskal kazetaritzan.

Sortzeak hiltzea du ondorio, baina penatxo eman zigun Xabierren heriotzak, 2014ko uda betean.

----

### **Ikasketak eta lehenengo lanak**

Humanitateak eta Filosofia ikasketak Gasteizko Seminarioan burutu eta Madrileko Kazetaritza Eskolara joan zen ikastera. 1957an lortu zuen bere kazetari titulua, eta Euskal Herriko Unibertsitatean berri, 1989an. Donostiako Zuzenbide Eskolan eta Pariseko Unibertsitate Katolikoan osatu zituen beste ikasketak.

### **Kazetaritza ofizio eta lanbide**

Madrilen egin zituen lehenengo praktikak, non eta *Informaciones* egunkarian, aldi berean Donostiako *El Diario Vascon* ere idatziz inoiz.

*Radio Nacional de España*raiko saio batzuk prestatu zituen garai hartan. Besteak beste, irrati horretan zabaldu zuten Santiago Ramón y Cajal jaunari buruz idatzi zuen seriea.

Argi zegoen Donostiako *La Voz de España* noren eta zeren eskuetan zegoen: *POR DIOS, POR ESPAÑA Y POR FRANCO* zeraman goiburu eta helburu lehenengo orrialdearen goiko aldean. Baina jakin zuen zezen koskorak ongi toreatzen.

Prosa eta poesia esparruan bietan egin zituen sartu-irtenak. "Elkano" eta "Agreda" sariak jaso zituen, bere lan asko goraiapatuz. Tolosa, Gasteiz eta Irungo norgehiagoketan esku hartu zuen inoiz.

### **Familiako gizona**

Madriilen ikasten ari zela ezagutu zuen Mari Carmen Puente erizain gaztearekin ezkondu zen, 1961ean, Santiago de Compostelan, hangoa baitzen emaztegaia.

Herri horren eta Galiziaren maitale eta mireslerik sutsuenetakoa ezagutu zuen unetik. Hala ere, beti buruan zeraman "*Lo vasco en Santiago de Compostela*" liburua egiteke gelditu zitzaiola aitortu digu alargunak.

Ezkondu eta bost seme-alaba izan zituzten: Xabier, Karmele, Monika, Ainhoa eta Iñigo; eta biloba bat, Maialen. Ez dute gogoan aita zenak inoiz etxean kazetaritza konturik aipatzen zuenik. Bai ordea lehen eta oraingo euskal gizartea eta kultura, gure bertsolariak, hemengo bazterrak, aztarnategiak, arkeologia eta abar.

### **Lanean**

*Javier de Aramburu* izenez sinatzen zituen bere idazlanak. Eta beste asko sinadurarik gabe, sail askotako arduradun zen-eta. Denetarik egin zuen: Nazioarteko saila zaindu, egunkariak herrietan zituen korrespontsalen kronikak bildu eta txukundu, kultura sailerako jasotzen zituenak bateratu... Euskal gizartea eta kulturaz egunero zutabe bat idatzi nahi zuela eskatu zion behinola zuzendari jaunari, eta hark: "Baina nahiko gai izango al duzu gero eguneroko zure zutabe hori betetzeko?". Ez zuen asko ezagutzen.

Hondarribia, Donostia, Gipuzkoa, Euskal Herriko... Gai askori buruz idatzi zuen, erreportaje luze-zabalak eta elkarrizketak eginez. Manuel Lekuona, Koldo Mitxelena, Jorge Oteiza edo eta Jose Maria Buska Isusi bezala elkarrizketatuko zituen Manuel

Benitez *El Cordobés* toreroa edo udaldia pasatzera Donostiara zetorren fama handiko beste edonor.

Kritika literarioak eta argitara ematen ziren liburuen aipamenak, hemengo musikagileak, musika-jaialdiak, edo eta herrietako kultur ospakizun eta omenaldien berriak aipatzen zituen. Donostian nahiz herrietan egiten ziren bertso-jaialdietara sarri joaten zen, bertsolarien miresle eta laguna zen-eta.

Haren lana eta ibilbidea ezagutu nahi eta bere alarguna eta seme-alabekin izan nuen bileran<sup>1</sup> harri eta zur utzi ninduten. Zenbat lan, zenbat artikulu eder! 1961ean hasi eta 1974ra bitartean idatzitako lan asko jaso eta gordeta dauzka alargunak, egunez egun, txukun liburuetan josita. Beste sail batean, *Zeruko Argia*-n argitaratutakoak. (Inoiz dena osorik argitara eman nahi izanda ere, ez da altxor makala, alajainkoa!).

Gure herriaren izate eta nortasuna gogoratu eta errespetatuz idazten zuen disimuluz eta zeharka bederen, inguruko liztor-habiak aztoratzeke, petralkeriak gauza onik ez duela ekartzen eta. Zezenaren aurrean jarri gabe ez omen da ikasten ondo toreatzen. Horixe egiten saiatu zen.

Parisen eta European zehar ibili zen. Ameriketara, Montrealgo (Kanada) Nazioarteko Erakusketa bisitatu zuen, eta Ternua, arrantzaleen lana bertatik bertara ezagutu nahita. ONU-ko egoitza handian ordu batzuk iragan zituen, 1967an.

## **Arrantza eta arrantzaleak**

Bere omena eta esker ona erakutsi nahi izan zien arrantzaleei, irratsaio bereziak antolatuz Donostiako RNE irrastian, 1976-1977an.

70eko hamarraldi hasieran Ternuako lurralde-itsasaldeak ezagutu zituen, euskal arrantzaleen egoera eta lanaren berri ezagutzeko. Pasaiako *Lasa* enpresaren untzian sartu eta han joan zen, egunkarira lanak bidaltzea helburu zuela. Periodikora idazlanak bidali ez ezik, ehunka argazki eta diapositiba egin zuen, eta ikus-entzunezko bat Super-8an<sup>2</sup>. 1972an argitara eman zuen *Terranova. La ruta del bacalao* libururako materiala joan-etorri hartan metatu zuen.

## **DEIA**

1977an sortu zen *Deia* egunkarian Gipuzkoako ordezkari eta erredaktoreburutza eman zizkioten. *Punto y Hora de Euskal*

---

<sup>1</sup> Donostia, 2014ko azaroaren 1ean

<sup>2</sup> Gipuzkoako Itsas-museoari eman zion gero ikus-entzunezko hori.

*Herria* (Iruñea, 1976) aldizkariaren sortzaile eta sustatzaile eta erredakzio-kontseiluko izan zen.

## **Lanbide askotan saiatua**

Ondorengo ardura hauek izan zituen beregain, gutxienez:

Donostiako Zinemaldiko *Festival* aldizkariaren zuzendari (1960). *Real Sociedad Bascongada de los Amigos del País/Euskal Herriaren Adiskideen Elkarteko* bazkide “supernumerarioa” (1966). Baionan sortu zen *Euskal Dantzarien Biltzarra - Federación de Danzas Vascas* elkartearen sortzaile, eragile eta presidenteorde (1966). Donostiako *Sociedad Guipuzcoana de Ediciones y Publicaciones* elkartearen sustatzaile, eragile eta zuzendari (1968). Donostiako Nazioarteko Zinemaldiko prentsa bulegoko buru (1974, 1975, 1976). Euskaltzain urgazle (1975). Espainiako Prentsa Federazioaren Biltzarretan partaide (1975). Herriz herri ibili zen hitzaldiak ematen. Madrileko Ateneoan ere bai, euskal historia eta kulturari buruz hitz egiten. *Eusko Ikaskuntzako* kide, eta *Gipuzkoako Ozeanografia* elkarteko kide (1978). Eusko Jaurlaritzako Kultura sailak antolatu zuen “*Iparragirre urtea*”ren zuzendari (1981). Eusko Jaurlaritzako Kultura sailak antolatu zuen “*Los Vascos en América/Euskaldunak Ameriketan*” Biltzarren zuzendari. Euskal Irrati-Telebistarako langileak prestatzeko Donostian eta Bilbon Kultura sailak antolatu zituen ikastaroetan irakasle (1982). Eusko Ikaskuntzaren IX. Biltzarreko prentsa arduradun (1983). “*Vizcaya en la Edad Media*” historia-azterketa Biltzarreko prentsa bulegoko arduradun (Bilbo, 1984). Euskaltzaindiak Iruñean egin zuen bere X. Biltzarreko prentsa bulegoko arduradun (1984). Barneko Saileko komunikazio arduradun, Retolaza jaunarekin hasi eta Lasa jaunak bere kargua burutu zuen arte (1985-1991). Eusko Legebiltzarrean Lehendakariartzako Kabinetearen arduradun (1991-1995). *Industrias Gráficas Valverde* irarkolako prentsa eta harreman publikoetarako arduradun. *Irun Hiria* poesia sariketan epaimahaiko. *Hondarribia Hiria* sariketan ere bai, fundatu zenez gero. *Bordari* eta *Satarka* literatur lehiaketetan mahaiko, hasieratik. Herriko *Euskal Jaien 50. urteurreneko* ospakizunetan buru-belarri saiatu zen. Gipuzkoako Kazetarien Elkarteko buru aldi batean. Galiziarren laguna zenez, “*Cofrade de Honra da Enxebe e Pelingrina, Cofradia de Queimada no Pais Vasco*”, eta “*Amigo de las Casas Regionales*” izendatua. Lehenengo Donostiako Amara auzoan sortu zen Santo Tomas Lizeoaren sortzaile eta bultzatzaileetakoa<sup>3</sup>. Geografia klaseak eman zizkien bigarren ikastaroko neska-mutilei.

## **Idazle**

---

<sup>3</sup> K. Santamaria, K. Mitxelena, J.M. Zumalabe, J.M. Ugarte eta beste euskaltzale askok sortua, 1960-1961ean.

*La Voz de España* egunkarian ez ezik *El Bidasoa* (Irun), *Hoja del Mar*, *Dantzari*, *Zeruko Argia*, *Olerti* eta abarretan idatzi zuen.

**Liburuak:** *Alarde de Fuenterrabia - Ondarribiko alardea; Terranova. La ruta del bacalao; Juan Ignacio Iztueta; Personajes Guipuzcoanos* (bi tomo), *Sitio de Fuenterrabia; Euskadi; Pakea, 50 urte;* eta *Paseos por la ciudad de Hondarrabia. Paseos por la Ciudad de Irun* liburua idatzi eta Irungo udaletxeari eman zion. Argitaratzeke dago, dirurik ez dutela-eta.

**Artikuluak:** *-El Txakoli en el Fuero de Guipúzcoa -* Boletín de estudios históricos sobre San Sebastián. San Sebastián, nº 16-17 (1982-1983), J. Inazio Telletxea Idigorasen omenez argitara emana (Sancho el Sabio Fundazioa).

**Elkarlanean:** *Euskal Herria. Realidad y Proyecto (Medios de comunicación social (1939-1984); Euskal Herria; Herriko Euskal Jaian 50 urteurrena, herriko erakunde eta herritarrekin.*

**Linkak** (Web orrialde irekia): *El camino de Santiago por Hondarribia; Arqueología en el Jaizkibel; Un Hondarribiarra de hace 6.000 años; Hondarribia, ciudad amurallada; Hondarribia ya estaba habitada desde hace 800 años...*

## **Amaitzeko**

Aranbururekin profesionalki lana egiteko aukera izan zuen edonork aitortu duenez, lankide ona, Euskal Herria/Euskadi zer zen ondo zekiena. Mahaian eta lagun artean, atsegina eta mokofina -euskaldun ona izateko ezinbesteko baldintza-. Ondo jan eta edan bai, baina neurritz beti. Ez zen "surtako gizona". J.J. Lapitz lagunak esan bide zion noizbait "sukaldeak ez zuela behintzat azpian harrapatuko". "Gizon ona, kazetari euskalduna eta euskaltzalea frankismo garaian, trantsizioan eta gero ere" (JL Lizundia).

Bego goian lasai eta zoriontsu. Horixe opa diot, bihotza betean.

Xabier zenaren familiari eskerrak eman nahi dizkiot azkenik eskaini didaten laguntasun guztiagatik. Mila esker.